



emán ta zabal zazu



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea



DOCENTIAZ PROGRAMA
UPV/EHUko irakasleen irakaskuntza jardueraren ebaluazio programa

Fase esperimentaleko 8. deialdia

Irakaslana Ebaluatzeko Unibertsitate Batzordeari DOCENTIAZ 8.B programari buruzko inkestan oinarritutako txostena

2018ko urria



AURKIBIDEA

Orria

- | | | |
|----|----------------------|---|
| 1. | Sarrera | 3 |
| 2. | Erantzunen analisisa | 4 |



SARRERA

DOCENTIAZ UPV/EHUko irakasleen irakaskuntza jardueraren ebaluazio programa hezitzailea da.

Fase esperimental honetan, DOCENTIAZ programa borondatezkoa da, eta irakaslana ebaluatzeko hiru informazio iturri ditu: irakaslea (autotxostena betetzen duena), ikasleak (iritzia ematen dutenak, lauhileko bakoitzaren amaieran jasotako irakaskuntzari buruzko inkesta bat beteta) eta, azkenik, ikastegia (Kalitate Batzordearen bitartez irakasleen lanaren alderdi formalei buruzko txosten bat egiten duena). Amaitzeko, hiru iturri horiek emandako informazioa aztertuta eta egiaztatuta, Irakaslana Ebaluatzeko Unibertsitate Batzordeak (IEUB) irakasleei zuzendutako amaierako txostena egiten du.

DOCENTIAZ programaren fase esperimentaleko zortzigarren deialdia 2018ko otsailean jarri zen abian, ohiko bideetatik ezagutarazi zen, eta 2018ko irailean amaitu da.

Irakaslana Ebaluatzeko Unibertsitate Batzordeak (IEUB) ebaluazio bat egin behar du, goian aipatutako hiru informazio iturrietan oinarrituta. Batzorde hau ondorengoek osatzen dute: irakaskuntzan ospea duten eta ebaluazio prozesuak ezagutzen dituzten UPV/EHUko irakasleek, gure unibertsitatean ikasi duten eta espediente aipagarria duten hirugarren zikloko ikasleek, eta UNIBASQek proposatutako UPV/EHUtik kanpoko bi kidek.

Jarraian, Irakaslana Ebaluatzeko Unibertsitate Batzordeko kideei egindako galdera-sortatik ateratako emaitzak ikus daitezke. Galdera-sorta, 2018ko uztailan, telematikoki bidali zitzairen eta modu anonimoan erantzun zioten.

Deialdi honetan, ikasleen presentzia igo da, 10 ikasle izanez: 2 Irakaslana Ebaluatzeko Unibertsitateko Batzordean, eta aldi baterako izaeraz izendatuta 8.



ERANTZUNEN ANALISIA

Galdetegiak likert mota neurriaren eskala galdera dikotomiko, kategorizatu, edo irekiekin nahasten du. DOCENTIAZ programaren garapenari buruzko 19 galdera ditu, horietako 10 atal irekiak izanik, hortaz, pisa kualitatiboa oso nabarmena da galdetegian.

IEUBko 58 (48 IIP, 10 ikasle) kideei egin genien galdera-sorta betetzeko gonbita; horietatik 34k (28 IIP, 6 ikasle) erantzun zuten.

Deialdi honetan ikasleen presentzia nabarmen areagotu dela kontuan hartuz, iritzi-bilketa bi talde hauek bereiziz egin da, irakasleak-ikasleak; hortaz, emaitzak estamentuz estamentu erakutsiko dira.



Jasotako galdetegen bidez bildutako informazioa, txosten honetara eramateko, edukia bi zati ezberdinetan banatu da: lehenik, bai galdera bai erantzun motagatik informazioaren transmisioa era grafiko eta kuantitatiboan posible egiten duten ítem haiek; jarraian, batera eta kualitatiboki, biltzen da jasotako iritzien adierazgarritzat hartu den informazioa, errepikatzeagatik nahiz haren edukiagatik.



1. itema.- Mesedez aukeratu zure jakintza arloa:

Ikasleak		
- Artea eta Giza Zientziak	1	%14
- Zientziak	1	%14
- Osasun Zientziak	2	%29
- Gizarte eta Lege Zientziak	0	%0
- Ingeniaritza eta Arkitektura	3	%43
Jasotako erantzunak	7	%100



Irakasleak		
- Artea eta Giza Zientziak	3	%11
- Zientziak	5	%18
- Osasun Zientziak	1	%4
- Gizarte eta Lege Zientziak	11	%39
- Ingeniaritza eta Arkitektura	8	%29
Jasotako erantzunak	28	%100



3. itema.- DOCENTIAZ programan dimentsioen pisua ondo banatuta dago.

Ikasleak		
Ez nago batere ados	0	%0
Ez nago ados	0	%0
Gutxi gorabehera ados nago	1	%17
Nahiko ados nago	3	%50
Erabat ados nago	2	%33
Jasotako erantzunak	6	%100

Irakasleak		
Ez nago batere ados	1	%4
Ez nago ados	2	%7
Gutxi gorabehera ados nago	2	%7
Nahiko ados nago	15	%54
Erabat ados nago	8	%29
Jasotako erantzunak	28	%100



Ondorioak (ikasleak): %83k Nahiko ados nago eta Erabat ados nago aukeratu zituen, aukeratu gabe bi hauta izan ziren.



Ondorioak (irakasleak): %82k Nahiko ados nago eta Erabat ados nago aukeratu zituen, gutxien aukeratutako erantzuna,%4ena da, Ez nago batere ados.



5. itema.- Irakaslanaren berri emateko zehaztu diren iritzi-iturri hauek egokiak dira.

Irakasleak					
	Ez nago batere ados	Ez nago ados	Gutxi gorabehera ados nago	Nahiko ados nago	Erabat ados nago
Irakasleak			%17	%83	
Ikastegiko Kalitate Batzordea			%17	%67	%17
Irakasleak (iritziari buruzko inkestaren bidez)			%17	%17	%67


Irakasleak					
	Ez nago batere ados	Ez nago ados	Gutxi gorabehera ados nago	Nahiko ados nago	Erabat ados nago
Irakasleak		%4	%14	%29	%54
Ikastegiko Kalitate Batzordea	%4	%21	%25	%18	%32
Irakasleak (iritziari buruzko inkestaren bidez)		%7	%18	%11	%64






6. itema.- Beste informazio-iturriren bat sartzea hartzen duzu beharrezkotzat:

Ikasleak		
Bai	1	%17
Ez	5	%83
Jasotako erantzunak	6	



Irakasleak		
Bai	9	%32
Ez	19	%68
Jasotako erantzunak	28	




Ondorioak (Ikasleak): aukera aukeratuena izan zen EZ.


Ondorioak (Irakasleak): aukera aukeratuena izan zen EZ.

8. itema.- Aplikazio informatikoa lagungarri izan da ebaluatzerakoan:

Ikasleak		
Ez nago batere ados	0	%0
Ez nago ados	0	%0
Gutxi gorabehera ados nago	1	%17
Nahiko ados nago	3	%50
Erabat ados nago	2	%33
Jasotako erantzunak	6	



Irakasleak		
Ez nago batere ados	0	%0
Ez nago ados	0	%0
Gutxi gorabehera ados nago	2	%7
Nahiko ados nago	11	%39
Erabat ados nago	15	%54
Jasotako erantzunak	28	



Ondorioak (ikasleak): %83k aukeratu zuten: Nahiko ados nago eta Erabat ados nago, aukeratu gabe bi hauta izan ziren.



Ondorioak (irakasleak): %93, aukeratu zuten: Erabat ados nago eta Nahiko ados nago, aukeratu gabe bi hauta izan ziren.



11. itema.- Protokoloa behar adina zehaztuta dago:

Ikasleak		
Ez nago batere ados	0	%0
Ez nago ados	0	%0
Gutxi gorabehera ados nago	0	%0
Nahiko ados nago	2	%33
Erabat ados nago	4	%67
Jasotako erantzunak	6	

Irakasleak		
Ez nago batere ados	0	%0
Ez nago ados	1	%4
Gutxi gorabehera ados nago	3	%11
Nahiko ados nago	13	%46
Erabat ados nago	11	%39
Jasotako erantzunak	28	





Ondorioak (ikasleak): %100k aukeratu zuten: Nahiko ados nago eta Erabat ados nago, aukeratu gabe hiru hauta izan ziren.

Ondorioak (irakasleak): %86k aukeratu zuten: Erabat ados nago eta Nahiko ados nago, Ez nago batere ados aukeratu gabeko hauta izan zen.

13. itema.- Lortu nahi den bezala, eta irakaslanaren balorazioan kategorizazio berria kontuan hartuta, DOCENTIAZ programak irakasleak bereizten ditu haien irakaskuntza kalitatea kontuan hartuta:

Ikasleak		
Ez nago batere ados	0	%0
Ez nago ados	0	%0
Gutxi gorabehera ados nago	1	%17
Nahiko ados nago	3	%50
Erabat ados nago	2	%33
Jasotako erantzunak	6	

Irakasleak		
Ez nago batere ados	0	%0
Ez nago ados	1	%4
Gutxi gorabehera ados nago	6	%21
Nahiko ados nago	16	%57
Erabat ados nago	5	%18
Jasotako erantzunak	28	





Ondorioak (ikasleak): %83k aukeratu zuten: Nahiko ados nago eta Erabat ados nago; aukeratu gabe bi hauta izan ziren.

Ondorioak (irakasleak): %79k, aukeratu zuten: Nahiko ados nago eta Gutxi gorabehera ados nago; Ez nago batere ados aukeratu gabeko hauta izan zen.



15. itema.- Azaldu zein izan den erabilitako denbora, batez beste, espedienteak ebaluatzerakoan (ordutan neurtuta):

	Ikasleak (6 erantzun)	Irakasleak (28 erantzun)
1 ordu		1
1 ordu eta erdi		1
2 ordu	1	5
2 ordu eta erdi		4
3 ordu	4	5
4 ordu	1	6
5 ordu eta erdi		6
Batez bestekoa:	3	3,5

16 itema.- Dimentsioren bat aldatuko zenuke?

Ikasleak		
Bai	5	%83
Ez	1	%17
Jasotako erantzunak	6	

Irakasleak		
Bai	16	%57
Ez	12	%43
Respuestas recogidas	28	







17 itema.- Azaldu zein izango litzatekeen:

Ikasleak		
0 Dimentsioa	1	17%
1 Dimentsioa	3	50%
2 Dimentsioa	2	33%
3 Dimentsioa	1	17%
Jasotako erantzunak	6	

Irakasleak		
0 Dimentsioa	11	39%
1 Dimentsioa	6	21%
2 Dimentsioa	10	36%
3 Dimentsioa	14	50%
Respuestas recogidas	28	



Ondorioak (ikasleak): %67k aukeratu zuten: 1.Dimentsioa eta 2.Dimentsioa, gutxien aukeratutako erantzuna, %17, 0.Dimentsioa izan zen.

Ondorioak (irakasleak): %79k, aukeratu zuten 0.Dimentsioa eta 3. Dimentsioa, gutxien aukeratutako erantzuna, %21, 1.Dimentsioa izan zen.



Jarraian, Irakaslana Ebaluatzeko Unibertsitateko Batzordeak 8. Deialdiaren Docentiaz programari egindako hausnarketan eta hobekuntzen proposamen laburpena batzen da.

2. itema.- Azal ezazu DOCENTIAZ programatik ken ahal den adierazle bat. Mesedez, argudiatu zure erantzuna:

Ikasleak:

- Ikasleen iritziari buruzkoa eta Ikastegietako Kalitate Batzordearen txostena.

Irakasleak:

- Argi zehaztu zer diren "Unibertsitate-ikasketa ofizialetan zuzendutako edo gainbegiratutako lanak".
- Arrakasta tasei buruz, irakaskuntza kalitatearen adierazle gisa arrakasta tasa erabiltzen bada, ikasleei eskatzen zaien exigentzia maila gutxitzeko arriskua dago.
- Irakaskuntza emateko asteko egonaldiak, kasu gehienetan, anbiguoak eta ikerkuntzari buruzkoak dira.
- Faktore zuzentzailea. Gehienetan, kalkulatzeko konplexua delako, ez da beti justua, puntuazioa igo egiten du, eta igoera honek ez dauka zerikusirik metodologia aktiboen erabilerarekin.
- Guztiak egokiak dira.

4. itema.- Azal ezazu egin litekeen aldaketa bat (Dimentsioen pisua ondo banatuta dago DOCENTIAZ programan):

Ikasleak:

- **1. dimentsioa:** Ikasle Gida eta Ikaslanari puntu gehiegi ematen zaie. Gehiago oinarritu beharko litzateke emaitzetan. Galdera hau da; Ikaslearen Gidan agertzen dena, bete egiten da? Edo dena da hitzontzikeria Docentiazten puntu gehiago lortzeko? Nork ziurtatzen du idatzita dagoena bete egiten dela?
- **2. dimentsioa:** Ikasleen iritziari pisu gehiago ematea.
- **3. dimentsioa:** Formakuntza atalaren puntuazioa 4 puntu igotzea, 1. eta 3. dimentsioen puntuazioak orekatzeko.

Irakasleak:

0. dimentsioa

- 0. dimentsioak ez du irakaskuntza mota batzuen zailtasuna adierazten. Izan ere, gehieneko faktore zuzentzailea gutxitu egin da.



2. dimentsioa

- Gehiago baloratu beharko lirateke ikasleei egindako inkestak, eta gutxiago ikaslearen gida. Arrazoa: askotan, ikaslearen Gida, ikasgaia ematen duten irakasleek egindakoa da (gauza bera gerta daiteke ikaslanarekin). Hori dela eta, hobe izango litzateke irakaslanaren balorazioa egitea, ikasleei egindako inkestetan oinarriturik.
- Pisu gehiegi eman zaio 2. dimentsioari, are gehiago kontuan izanik derrigorrezkoa dela dimentsio guztietan bikaintasuna lortzea. Alde batetik, dagoeneko ikasleen iritzia aintzat hartzen da 1. dimentsioan, bestetik, arrakasta tasek ez lukete hainbeste eraginik euki beharko amaierako emaitzan; badaude irakasleak menperatu ezin dituen hainbat faktore, arrakasta tasetan eragin euki ditzaketeenak: ikasgaia ematen den kurtsoa, edota matrikulatuta dauden ikasleen kopurua.
- Uste dut pisu gehiago eman behar zaiela ikasleek egindako inkestean emaitzei.

3. dimentsioa

- Nire ustez, badaude meritu batzuk irakaslearen ekimen edo borondatearen esku ez daudenak, beraz, ez da irakaslea zuzenean aztertzen, baizik eta bere saila edo ikastegia.
- Behar bada, "emandako formakuntza"ren pisua gehiegizkoa da. Irakasle gutxik aurkezten dituzte merituak atal honetan, irakasle askorentzat nahiko zaila delako mota horretako lanak egitea, espezialitate zehatz batean ez bada.

Programan, modu orokorrean:

- Oso ona eta bikaina kalifikazioen artean, beste kalifikazio bat egon beharko litzateke.
- Ez nituzke pisuak aldatuko
- 1. dimentsioa, %10a; 2. dimentsioa %50a; 3. dimentsioa %40a.
- Arrakasta tasen pisua jaitsiko nuke eta Fpe faktorea kendu. Oharra; Batez ere, IIPk, irakaskuntza motaren ezaugarriekin bat ez datorren iritzi inkesta orokor bat bakarrik daukanean.



7. itema.- Arrazoitu zure erantzuna, mesedez (Beste informazio-iturriren baten sartzea hartzen duzu beharrezkotzat?):

Ikasleak

- Ikasle gidan proposatzen den guztia bete egiten dela egiaztatzeko moduren bat aurkitu beharko litzateke.

Irakasleak

- Departamentuen txostenak.
- Erronka oso zaila dela jakinaren gainean egonda, beharrezkoa izango litzateke batzorde bat irakasleek paperean dagoena benetan aurrera eramaten dutela egiaztatzeko, aurrez aurre eta ebidentziekin.
- Sailen zuzendaritzek parte hartu beharko lukete, eta inplikatu. Hala ere, badakit zenbait sailek ez dutela uste hau komenigarria denik, tirabiren iturria izan daiteke eta.
- Ikasgaiaren irakas gida ofiziala, zuzenean web orriaren bitartez.

9. itema.- Adierazi alderdi negatibo bat (Aplikazio informatikoa lagungarri izan da ebaluatzerakoan):

Ikasleak

- Motela, eskegita gelditzen dela ematen du.
- Ez dut uste alde negatiborik duenik.
- "Eguneratze" orduan, zenbait akats ditu.
- Ez da oso intuitiboa.

Irakasleak

- Desadostasunak egoten dira eskatutako dokumentu eta eskariak egin duen pertsonak emandako dokumentuen artean.
- Arazo teknikoak, eta konektatzeko ere.
- Aplikatiboan orriak kargatzeko beharrezko denbora (itxarote-denbora).
- Hasiera batean ez da ulertzeko erraza.
- Atal batzuetan, beharrezkoak dira eremu gehiago.
- Ikasle gidan, modulu lanak aurkezten dira.
- Batzuetan, Euskak Autonomi Erkidego kanpotik aplikatiboari egindako konexioak motelak dira.
- Ez dut ikusten zailtasunik.
- Ez dut euki arazorik aplikatiboarekin.
- Ebaluatzaileari, bere irakaskuntza zaman egiten zaion aitortpena eskasa da.
- Informazioa oso zatituta eta sakabanatuta dago.



- Bat ere ez.

10. itema.- Adierazi hobekuntza bat (Aplikazio informatikoa lagungarri izan da ebaluatzerakoan):

Ikasleak

- Behar bada, fitxak erraztu ahalko lirateke.
- Azpimarratu gaitasunak eta ikaskuntzaren emaitzak, ikasleei ikasle gidan zehaztu behar zaiela modu argi batean, eta ez egin saileko ikasle gidaren kopia bat.
- Aplikatiboan zehar ibiltzea errazagoa izan dadila, eta eskegita ez geratzea.

Irakasleak

- Eskatzen diren dokumentuak, eta eskatzaileak aurkezten dituen dokumentuen arteko koherentzia hobetzea.
- Aplikatiboa, azkarragoa eta erabiltzeko errazagoa izatea.
- Enuntziatuak hobetu, 3. dimentsioan (garapen profesionala), argitalpen eta komunikazioak, adierazi goi mailako ikaskuntza-irakaskuntzarekin lotutarik egon behar direla.
- Uste dut dekanotzetatik, koordinakuntzen ebidentziak kudeatu beharko liratekeela, hiru irakasle edota bi ikastegi barne daudenean argi adieraziz, horrela irakasleek aurkeztutako informazioa egiaztatu beharra saihesten da.
- Ebaluatu behar diren dokumentu guztiak pantaila bakar batetik jaistea erosoagoa izango litzateke.
- Aplikatibo infomatikoa zuzena.
- Irakaskuntza zaman aitortpena igotzea.
- Eranskinak "pdf" formatuan igotzera behartzea, haien tamaina eta orrien kopurua murriztea.
- Aplikazio informatikoa intuitiboagoa egitea.
- Bat ere ez.

12. itema.- Adierazi protokoloan aurkitu duzun hutsuneren bat:

Ikasleak

- Hutsunerik ez.
- Zenbait anbiguitasun daude; Adibidez, ikaskuntza emaitzekin lotutako guztia.



Irakasleak

- Badaude hainbat meritu, protokoloaren adierazleetan kokatzeko zailak direnak.
- Enuntziatuak hobetu. Argitu, eta zer baloratu eta zer baloratu behar ez dena adierazten duen adibide bat jarri.
- Ez da geratzen nahiko argi ikaslanaren ebidentzia osoa izan behar den, eta ikasleen gida ez dela erabiltzen ikaslana ebaluatzeko.
- 1. dimentsioa zehatzegia da.

14. itema.- Adierazi zer neurri litekeen lagungarri, bereizgarritasun hori lortzeko, irakaskuntza kalitateari erreparatuta (lortu nahi den bezala, DOCENTIAZ programak irakasleak bereizten ditu haien irakaskuntza kalitatea kontuan hartuta):

Ikasleak

- Irakasleei, bere irakaslanaren kalitateaz arduratzera premiatzen bazaie, bere irakaskuntzan ondorio positiboak ekarriko ditu.
- Dimentsio guztien multzoa.
- Ez daukat iradokizunik atal honetan.
- Irakasleak irakaskuntzan konprometitzeko, ikerkuntzan gertatzen den bezala, honako hauek aitortu behar dira: osagarriak, kredituen murrizketa, etabar...
- Ez aurkeztea solik ikaslan bat, baizik eta nola egituratzen duen, adibidez, klase praktiko baten apunteak.

Irakasleak

- 90 puntu baino gehiago, baina bikaintasuna lortu ez dutenentzat, beste kalifikazio bat egon beharko litzateke. Dena den, dimentsio bakoitzean %90a edo gehiago lortzen dutenentzat, Bikaintasun aipamena izateari ongi deritzot.
- Uste dut zenbat eta adituago izan arlo batean, gero eta hobeto transmititu daitekeela informazioa. Hori dela eta, nire iritziz, zenbait argitalpen, nahiz eta irakaskuntzarekin lotuta ez egon, aintzat hartu beharko lirateke, baldin eta irakasten den ikasgaiarekin lotuta badaude; unibertsitateko irakasle baten ikerketa jarduera eta irakas jardueraren arteko koherentzia egon behar da eta.
- Uste dut mugatu egin behar dela ikaslanatzat aurkezten dena. Nire ustez, ikasleei ematen zaien ikaslanaren gida aurkeztea eskatzen zaie irakasleei;



baina, askotan, hori ez da aurkezten dutena. Egiten dutenaren azalpen bat aurkezten dute.

- Ikasleen iritzia pisu handiagoa eukitzea. Egiaztapen mekanismo bat egotea, paper eta ikasleen iritziaren arteko desadostasuna dagoenean.
- Ondo dago dagoen moduan.
- Uste dut 3 dimentsioetan bikaintasuna lortu beharra ideia ona dela.
- Ez litzateke "oso ona" kalifikazioa lortu behar, 1. dimentsioan, puntuazioaren 3/4a lortzen ez bada, faktore zuzentzailea erabili gabe.
- Ebaluazio onargarria lortzeko, gutxiengo atalasea egotea dimentsio bakoitzean, bikaintasuna lortzeko egiten den bezala.

18. itema.- Azaldu proposatuko zenukeen aldaketa bat, eta dagokion dimentsioa:

Ikasleak:

- Hobeto bereiztu beharko liriteke gaitasunak eta emaitzak, ikasleek argi euki ditzaten bi kontzeptuak.
- Bi dimentsio hauetan, saileko batzorde bat egon beharko luke, egiaztatzeko ikasle gidan agertzen dena betetzen den.
- Bere irakalana jardueran daramatzan urteak kontuan harturik, irakaslearen hedakuntza kontuan hartzea.

Irakasleak:

- Ez nuke ezer aldatuko.
- 2.dimentsioko pisua, erdira jaitsiko nuke.
- Faktore zuzentzailea erabiliko nuke, 1. dimentsioan, gutxiengo batzuk bete ondoren, soilik. Modu berean, zuzendutako eta gainbegiratutako lanak, 2. dimentsiora mugituko nituzke.
- Hobeto idatzi behar da, eta adibideak jarri.
- 1. dimentsioa; irakalei eskatu beharko litzaietxe hizkuntzan koherentzia egotea, eta Ikasleen Gida eta Irakaslan, ikasgaia eman duten hizkuntza berean bidaltzea.
- Faktore zuzentzailea ez litzateke erabili beharko, 3 kreditu baino gutxiagoko irakaskuntza duten ikasgaiak bilduz lortu denean.
- Zuzendutako lan akademikoaren atalak daukan balorazioa igotzea. Balioztapen zorrotzagoa egitea zuzenagoa iruditzen zait. Adibidez, uste dut ez dela bidezkoa puntuazio bera ematea, 8 puntu, 7 kreditu dituen bati, eta ikasleen autonomia sustatze atalean 9,99 kreditu lortzen dituenari. Zuzenagoa da nota ezberdina jartzea, hiruko erregela baten bidez, adibidez. Zuzena iruditzen zait gehieneko puntuazioa ezartzea, 10 kredituarena bezala, eta puntuazio horretatik abiatuta, gehieneko 10 puntuko puntuazioa



jartzea, baina ez zait zuzena iruditzen lehen azaldutako adibidearen balorazioa, edota antzeko kasuak. Gainera, deialdi honetan, bikaintasuna lortzeko irizpidean egindako aldaketaren ondorioz, atal hau zorrotzago ebaluatzeko behar handiago dago.

19. itema.- . DOCENTIAZ programa hobetu nahian, gomendagarri litzateke honakoez gogoeta egitea:

Ikasleak:

- Ikasleei igotzen zaien ikasle gida ebaluatzea.
- Adierazten den guztia bete egiten dela egiaztatzea.
- Uste dut nahiko erraza dela ebaluazio onargarria lortzea, baita ere irakasle onak nabarmentzea, baina ez da erraza irakasle txarrak nabarmentzea, eta hauetakoak ere badaude Unibertsitatean.

Irakasleak:

- Docentiazek irakasleen ibilbide akademikoan euki behar duen eragina.
- Zenbait irakaslek jaso duten puntuazio altua, 1. dimentsioan puntu gutxi, eta 3. dimentsioan puntu askorekin lortutakoa.
- Irakaskuntza hobetzeko metodologian formakuntza. Uste dut atal honi pisu gehiago eman behar zaiola, baita gida didaktikoaren diseinu on bati ere.
- Nola lortu irakasle guztiak parte har dezaten (adibidez, gehieneko bosturtekoak aitortuta dituztenak).
- Inkestari pisu handiago ematea; Ebaluazio onargarria lortzeko 3,5-4 lortu beharra, oso ona lortzeko 4-4,5. Bikaina lortzeko, dagoen moduan utzi, 4,5-5.
- Irakas jarduera, ikerkuntza, kudeaketa, teknologia transferentzia etabarren arteko oreka edo konpentsazioa.
- Kalitate Batzordetik jasotzen den informazioa batzutan ez dator bat programan aurkezten denarekin. Ohiko joera hau da, aldeko txostena egitea, dimentsio guztietan, eskatzen zaiena benetan baloratu gabe. Hau dela eta, ebaluazioan kontraesanak ager daitezke.
- "Oso ona" eta "Bikain" artean, beste kalifikazio bat egon beharko litzateke.
- Metodologia eraginkor eta kooperatiboak erabiltzeko benetako asmoa.